

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

## 5047

*AGINDUA, 2023ko urriaren 23koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez bete gabe uzten baita Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzaren, Goi-kargudunaren idazkariaren lanpostua izendapen askearen bidez betetzeko deialdi publikoa.*

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 102.2.c artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdia egiteko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2023ko irailaren 8ko Aginduaren laugarren oinarrian xedatutakoarekin bat etorritik (2023ko irailaren 25eko EHAA, 183 zk.), honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bete gabe uztea goi-kargudunaren idazkari lanpostuaren deialdia, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturaren Zuzendaritzakoa (520010 kodea, 92. dotazioa).

Bigarrena.– Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, beronen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari, hilabeteko epean edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari, bi hilabeteko epean. Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da errekurtsoak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 23a.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,  
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.